

EMAKUME PILOTARIAK

LORALDIARI NEURRIA HARTU NAHIAN

Bat-batean frontoian eta telebistan emakumeak esku-pilotan jokatzen ikusten hasi gara. Emakume pilotariak oso pozik daude lehen lerrora jauzi egin dutelako, nahiz eta gogorarazi nahi duten itzalean makina bat urtez jokatu dutela, bai eskuz bai palaz. Munduko txapelkunak ere badira hainbat joko moldetan, inork gutxik badaki ere. Azken hiru-lau urteko aparraldia egituratu eta jokatzeke baldintza duinak kudeatzeko EPE Emakume Pilotarien Elkarte sortu berri dute. Oraingoz eskuzkoan eta palan jarriko dute arreta.

ONINTZA IRURETA AZKUNE
MARISOL RAMIREZ / FOKU

Hasiak dira izena ematen Emakume Master Cup txapelketarako. Urriaren erdialdean hasiko dira jokatzen eta finalak abenduaren 15ean izango dira Barakaldon. ETB1ek zuzenean emango ditu. Iaz 70 bat pilotarik hartu zuten parte. Hirugarren edizioa da. Arrakasta polita izan du esku pribatuek antolatutako txapelketak eta emakume pilotarien loraldiaren arrazoi nagusia izan da.

Galtzen utzi behar ez den auke-ratzat dute pilotariak gaur egungo egoera, baina beti bezala, aurkiak ifrentzua du eta hemen ere itokinak zerrendatuta dauzkate. Ez da kasualitatea duela hiru-lau urte loraldia hasi eta ekainaren bukaeran Emakume Pilotarien Elkarte sortzea. Hego Euskal Herriko jokalaria bildu nahi ditu eta oraingoz 70 bat pilotarik eman

dute izena. Gaur egungo argi-ilunez hitz egiteko elkarte-ko lau kideekin elkartu gara: Patri Espinar Donostian bizi den usansoloarra, Alaitz Badiola azpeitiarra, Garbiñe Tijero hernaniarra eta Maider Mendizabal anoetarra. Laurak dira jokalaria, eta ez eskuz bakarrik, baita beste hainbat joko moldetan ere. Jokatzeaz gain kirol horretako ia alor guztietan aritu dira lanean: entrenatzaile umeekin eta federatuekin, teknifikazioan, federazioan emakumeen pilota bultzatzen, hitzaldiak ematen... Urte luzetako eskarmentua dute eta garbi ikusi dute azken urteotako olatua ezin dela utzi itsaso zabalean bere kabuz ibilian. Emakume pilotariak duin arituko badira, olatua emakumeen beharretara egokitu behar da.





BATIK BAT PALAZ. Pilotari guztiak ez dira federatuak eta eskuz jokatzen dutenak. Palaz asko jokatu du emakumeak. Argazkia Emakumea Pilotari Egunkoa da. Aisialdian palaz jokatzekeo egitasmoa da 'Emakumea Pilotari'.

ZERGATIK ARI GARA ORAIN EMAKUMEEN PILOTAZ HIZKETAN?

Azken urteotako arrakasta bi hitzetan laburbildu digute EPEko kideek: Amarikea eta telebista. Iker Amarikea larrabetzuarrak pilotari profesionala izan da, Bizkaiko Pilota Federazioko teknikaria, eta orain enpresaria da. Federazioan zegoela egin zuen Emakume Cup txapelketa, eta ETB1ek emititzea lortu zuen. Hurrengo urtetik aurrera, federaziotik kanpo, enpresari moduan, ekimenari izena aldatu eta Emakume Master Cup antolatu du eta urtean-urtean ikusgarritasuna irabazi du. EPEko lau kideek ez dute zalantzarik, enpresari honek saltzen jakin du, erakunde publikoen diru-laguntzak lortu ditu, babesletza ekonomiko pribatuak, eta ezinbesteko pieza: telebista. Makina

bat lan egin dute gure solaskideek eta beste emakume askok emakume pilotariak lehen lerrora ekartzeko saiakeran, baina ez dute sekula halakorik lortu. Amarikek asmatu du, metxa piztu zuen eta erakunde publikoek eta enpresek txanpari heldu diote.

“

1990etik ari dira emakumeak mundu mailan jokatzen palaz. Orain arte ordea, ikusezinak izan dira, eta azken hiru urteetan esku-pilotarekin lehertu da dena”

GARBIÑE TIJERO
Emakume Pilotarien
Elkarteko kidea

Txapelketa pribatuak eta herrietako jaialdiak ugaltu ahala emakumeak harri azpitik ere atera dira. Hiru multzotan bana daitezke harrobi-kideak. Batetik, neska askok ume zirenetik nerabezaroa arte jokatu zuten esku-pilotan. Emakumeentzako aurrerabiderik ez eta mutilekin jokatu ezinda (indarrez ezin zieten aurre egin) pilota utzi zuten. Oraingo loraldiak eraginda, gazte-gazteak ez badira ere eta sasoirik onenean ez badaude ere, pilotan hasi dira. Batek baino


gehiagok esan digu umetako arantza atera nahi dutela. Bigarrenik, pala jokalariai ditugu. Eskuz jarraitzerik izan ez zuten dezentek palari heldu zioten. Orain ere palaz aritzen dira, ikusgarri ez badira ere, eta esku-pilota haien joko molde kutuna ez dela aitortzen badute ere pilotaren aparraldian parte hartzea erabaki dute. Hirugarren multzoan daude gaztetxoak, haien ibilbidean etenik ezagutu ez dutenak. Txikitatik eskuz jokatu dute eta burrunbak nerabezaroan harrapatu ditu.

71 EUROKO KONTRATU PROFESIONAL OSPETSU HURA

Erakusleihen daude orain, eta txanpa pasatzen uzteko asmorik ez daukate. Alabaina, sentitzen hasiak dira ikuskitzen huts direla, emakume izategatik deitzen dietela sarri handik eta hemendik. Hala dio Patri Espinarrek: “Gure jarduna jokora mugatzen da. Guk ez dugu erabakirik hartzen, ez dugu dirurik ikusten, ez ditugu baldintzak ezartzen”. Bartzuetan tratua hala moduzkoa da: ordain

EAE-KO EMAKUME FEDERATUEN LIZENTZIAK


- KADETEAK
- GAZTEAK
- 22Z AZPIKOAK
- SENIORRAK
- EPAILEAK



Iturria: Euskadiko Euskal Pilota Federakuntza

'EMAKUMEA PILOTARI' EGITASMOKO JOKALARIAK

2004an Gipuzkoako Pilota Federazioak 'Emakumea Pilotari' egitasmoa jarri zuen abian. Emakumeak aisialdian palaz aritzeko ekimena da. Datuok egitasmo horretakoak dira.



Iturria: Gipuzkoako Pilota Federazioa

ekonomiko kaskarra, pilota desegokiak, antolaketa inprobisatuak... Kontu horiek txapelketa eta jaialdiei dagokienez. Fokua zabalduz gero berriz, pilota osorik egituratzen lan handia dagoela uste dute EPEko kideek. Erakunde publikoekin eta enpresa pribatuekin hitz egin eta emakume pilotarien jarduna duina izateko baldintzak ezarri behar direla uste dute. Egituratu eta profesionalizatu behar direla diotenean ondokoaz ari dira: teknifikazioa, entrenatzaileak, emakumeen beharretara egokitutako pilotak, umeen artean pilota joko moldeak sustatzea, ordain ekonomikoa... Gutxi-asko mutil eta gizonekin egiten den bezala.

Azken urte hauetan dirua mugitzen hasi da emakumeen pilotan eta urtea

joan urtea etorri konturatu dira pilotariengana ez dela ia ezer iritsi, alegia, erakunde publikoen diru-laguntzak eta enpresen irabaziak ez direla baliatzen egitura sendo bat sortu eta jarduera duintzeko. EPEko gure solaskideen iritziz, elkarte aldarrikapenak egiten hasi denez geroztik hasi dira batzuk erreze-loz begira: "Guk jarduera profesionalizatu nahi dugula esan eta hala aurpegi-ratzen digute: 'Eskatzen ari zarete!'. Edo udan hainbat partida jokatu dugula ikusi eta: 'Ederki ari zarete biltzen!'. Dirutzak jasotzen ariko bagina ere!".

Ez daukate ahazteko lehenengo aldiz kontratu profesionalarekin jokatu zutela lau haizetara zabaldu zeneko hura. Hedabideek zalaparta handiz kontatu

zuten. Bekozkoa zimurtu zaie gertaera kontatzerakoan: "Kontratu profesiona-la? Bai, hala zen, egun bateko kontra-tua eta 71 euro jaso genituen. Bizkaian ziren partidak eta batzuk Gipuzkoatik eta Nafarroatik joan ginen hara. Ez daukagu dietarik, garraioa guk ordaintzen dugu eta oso ohikoa da partida jokatzeko herrian bazkaltzea edo afaltzea, norberaren kontura, jakina. Guk askotan dirua poltsikotik jarri dugu eta jarraitzen dugu jartzen".

Kontratuen harira beste adibide bat eman digute Tijerok eta Badiolak. Mainer Mendizabal eta Patri Espinar sarri kadete edo jubenilen pare hartzen dituzte ordaintzeko orduan. Bi solaskideen iritziz, ez da batere bidezkoa, gaztetxoak

hasi berriak direlako eta Mendizabal eta Espinar munduko txapeldunak. Direna baino ez gutxiago eta ez gehiago tratatzea nahi dute eta horretarako pilotariak beraiek ere kontzientzia hartu behar dutela uste dute, arriskua baitago aparaldiak txoratuta edozein baldintzatan pilotan aritzeko, ahaztuta baldintza horietan gizonak ez dutela jokatzeko, edo beste era batera esanda, emakume direlako bigarren mailan ari direla.

EPEko kideek behin eta berriz azpimarratu dute gaurko helburu nagusia ez dela pilotatik bizitzea. 35 urtetik gora dituzte laurak eta ez dute buruan profesionala izatea. Patri Espinar munduko txapelduna da eta ondoko gogoeta egin du: "Nire adineko gizonak pilotatik bizi dira. Egin ditudan kirol guztietan afizionatua izan naiz eta mutila izango banintz profesionala izango nintzateke. Gaur egun ezin dut ezer espero, ez bada munduko txapelketa jokatzeko musutruk". Izatekotan ere hurrengo belaunaldiak egingo dute amets Olaizola edo Irujo bezala profesional aritzeko, ez behintzat ilea zuritzen hasi zaien beterranoek.

Diru kontuez ari direla, Ipar Euskal Herriko pilotariek gogoratu dira. Beste mundu bat dela adierazi digute, askoz baldintza hobeagoetan ari direla.

PROFESIONALAK XX. MENDE HASIERAN

Garai batean, ez hain aspaldi, Hego Euskal Herriko emakume pilotariak profesionalak izan ziren. Ildefonso Anabitarte puntista profesional ohi eta pilota enpresari donostiarrak egin zuen lehenengo aldiz profesionalizatzeko saiakera. Erraketa eta teniseko pilotarekin hasi ziren, baina joko biziago baten bila, larruzko pilota azkarrak erabiltzen hasi ziren eta horretarako erraketa gogorrak egin behar izan zituzten. XX. mende hasieratik 80ko hamarkadara arte jokatu zuten Espainia-ko Estatuan eta Ameriketako.

Garbiñe Tijero hernaniarrak 1990eko hamarkadara eraman gaitu jauzi batez: "1990etik ari dira emakumeak mundu mailan jokatzeko palaz. Orain arte ordea, ikusezinak izan dira, eta azken hiru urtetan esku-pilotarekin lehertu da dena. Badirudi orain hasi garela pilotan, eta gainera eskuz. Gipuzkoako Federazioak adibidez 1990etik antolatu du herrialde mailako txapelketa, etenik gabe, eta ez du gizartean oihartzunik izan. Pilota egitura-tuta egon da, herrialde, Euskadi, Espainia, Europa eta mundu mailan; baina palaz. Beti ere afizionatu mailan, ez profesional.



ARRAKASTA. Goian, Maider Mendizabal pilotari anoetarra. Behean, telebista finalak emititzen eta pilotalekuak beteta. Emakumeak eskuz jokatzen ikusteko grina adierazi du jendeak.

Munduko onenak izan dira batzuk, baina musutruk aritu izan dira".

Elitekoak alde batera utzita, aisialdian emakumeak palan aritzeko egitasmoak fruituak eman ditu hainbat urtetan. 2005-2006 denboraldian Gipuzkoako Federazioak Emakumea Pilotari egitasmoa abiatu zuen. Orduko hartan bederatzi emakume eman zuten izena. Gaur egun udalerriek eta federazioak, azken horrek hasieran baino askoz baliabide gutxiago-

rekin, kudeatzen dute egitasmoa. 2017-2018 denboraldian, federazioak bideratuta, adin guztietako 101 emakume hartu zuten parte. Udalerriek kudeatutakoak gehituta kopuruak erraz egiten du gora.

Pilotan egin nahi duten emakumeak badaude. Oraingo puztualdia haize boladak ez eramateko neurriak hartzeko ordua da, neurri duinak, gizonen eta emakumeen jarduna berdinduko duten neurriak. ●

MAIDER MENDIZABAL

EPEko kidea eta eliteko pilotaria

Pozik emakume pilotariek lortu duten oihartzunarekin?

Baietz esango dut. Motzak ginatete auktara hau baliatuko ez bagenu. Hala ere, baditut hainbat arantza azken urteotako hau dela-eta.

Zeintzuk?

Palan txapelketa irabazi eta kazetariaren azken galdera beti zen: "Noizko emakumeak eskuz profesionaletan?". Galderak amorrua ematen zidan. Zergatik eskuz? Zergatik ez palaz, zesta puntan edo xarez? Hedabideetan esku-pilota dago eta beraz jendea eskuzkoari begira dago. Emakume Cup antolatu zenean [Emakume Master Cupen aurrekaria] ez zidan grazia handirik egin. Ez ziren aritu pilotaririk onenak, eta gainera, hedabideek zioten lehen aldiz emakume federatuak eskuz ari zirela jokatzeko, eta ez zen hala.

Ez zen hala.

Nire adinekook [41 urte] orain dela 30 urte eskuz jokatzeko genuen! Nik etsita utzi nuen esku-pilota. Ondoko mutilei bigotetxo atera zitzaion eta haien indarraren aurka ezin nuen, nahiz eta teknikoki hobeia izan. Orain dela 60-70 urtez geroztik eskuzkoa bultzatu da eta esku-pilota ikusten dugu, baina lehenago palistak eta puntistak zeuden lehen lerroan.

Esku-pilota utzi eta palan aritu zara. Elitean eta oraingo oihartzunaren laurdenik gabe.

Orain kalean ezagutzen naute eta "hara! pilotaria da hori!", esaten dute. 30 urte daramatzat pilotan! Emakume Master Cupen finalera iritsi naizelako eta telebistan bi aldiz azaldu naizelako ezagun egin naiz. Eta beste kontu bat. Eskuz baino hobeia naiz eta gara palaz.

Zer esan nahi duzu?

Esan dizut, emakumeen pilotaz sortu den interesa ezin dugu galtzen utzi eta

esku bada eskuz da. Hala ere, eskuz baino maila hobeia dugu emakumeok palaz eta hori ere esan beharko dugu.

Zer esan nahi duzue profesionalizatu nahi duzuela diozuenean?

Prozesu baten hasiera da. 3 urteko nire alabak pilotaria izan nahi badu izan delako egitura bat, bide bat egin dagoena.

Emakumeen beste kirol batzuetan egongo den antzekoa. Ez dadila ama bezala ibili: jokalaria, entrenatzaile, selekzionatzaile eta hedabideetara oharrak bidaltzen ere bai. Ari gara entzuten orain profesional izan nahi dugula. Bizitza guztia daramagu-eta kobratu gabe jokatzeko!

Ez dut aberastea eskatzen, baina bai dagokidana jasotzea. Behin ordu eta erdiko bidaia kotxez egin, eta nire familia eta pilotari baten gurasoak izan genituen ikusle. Gazta erdia eta ardo botila eman zizkidaten. Nik ez dut horrela itzuli nahi etxera. Ez, mesedez, gazta eta ardoa ez zaizkit gustatzen.

“
3 urteko nire alabak pilotaria izan nahi badu, ez dadila ama bezala ibili”



Gipuzkoako

Bertsolari Txapelketa 2019

Irailak 21 17:00

Ordizia. Herri Antzokia

Beñat Lizaso Alberdi
Ainhua Agirreazaldegi Rekondo
Manex Mujika Amunarriz
Ane Zuazubiskar Iñarra
Aitor Urbieta Aizpurua
Asier Azpiroz Iztueta

Aurkezlea: Maddi Labaka Mayo

Irailak 22 17:00

Zumaia. Aita Mari Zinema

Ander Lizarralde Jimeno
Gorka Maiz Alustiza
Beñat Jauregi Etxeberria
Jokin Bergara Eguren
Unai Muñoa Amundarain
Iñigo Gorostazu Etxebeste

Aurkezlea: Saroi Jauregi Aiestaran

Antolatzailea



Laguntzailea



www.bertsotzale.eus